

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 25ean onartutako Ikasketa Ofizialen Kudeaketarako Araudiaren Aldaketa

ARAUDIAREN ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

UPV/EHUko Estatutuek 4. Artikuluan UPV/EHUREN helburuen artean jasotzen dute

«d) Euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan.»

79. artikulua honela dio: « 4.– UPV/EHUK irakaskuntzaren kalitatea eta gizartearen premiekiko egokitasuna zainduko du, eta irakaskuntzaren jarraipena ziurtatuko, barne programen zein kanpokoen bidez. Barne programetan ikasleen partaidetza bermatuko da.»

85. artikulua honako hau zehazten du: «4.– Doktore titulua lortzeko doktorego tesia gainditu behar da. **UPV/EHUK neurriak hartuko ditu doktorego tesien originaltasuna eta kalitatea bermatze aldera.**»

91. artikulua honako zehaztapen hauek egiten ditu: «4.– **UPV/EHUK euskararen erabilera bultzatuko du ikerlanetan eta zabalkunde zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoan. Era berean, beste hizkuntza batzuen erabilera ere bultzatuko du jarduera horietan.**»

UPV/EHUko estatutuek argi eta garbi islatzen dute unibertsitateak « **doktorego tesien originaltasuna eta kalitatea bermatze aldera**» duen erantzukizuna. Bestalde, 47/2012 Dekretuak ezartzen du «**Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea**» doktoregaiak **C2 mailako akreditazioa aurkeztetik salbuetsita egoteko bidea eman ahal diela**. Era berean, dekretuak zehaztapen hau egiten du: «**Unibertsitateek eman behar dituzte dekretu honen 2. artikuluan zehaztutako salbuespenak gauzatzeko ziurtagiriak**». Araudi biak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke **UPV/EHUREN ardura dela tesia euskaraz aurkeztu eta defendatzen duen doktoregaia tesi horren egilea dela, eta bai tesiaren dokumentu idatzian bai ahozko defentsan beharrezko hizkuntza-kalitatea erakusten duela**.

Gainera, kontuan hartu behar da Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana 2023-2026, zeinak unibertsitate-komunitate inklusibo eta berdintasunezkoaren elementu eta ekimenen artean funtsezkotzat hartzen duen **euskara unibertsitatearen jardura guztietan txertatzea, euskararen erabileraren normalizazioa helburu, bai irakaskuntzan eta bai unibertsitatearen komunitatearen gainerako jardura guztietan**.

ikerketan UPV/EHUREN funtsezko eginkizuna da, eta euskarazko ikerketaren sustapena gure unibertsitateak eginkizun horri dagokionez duen bereizgarrietako bat, Euskal Unibertsitate Sistemaren Planean 2023-2026 espresuki jasotzen dena. Ikerketa zuzentzeko erantzukizuna doktoreei dagokie eta, gainera, doktore titulua izatea nahitaezkoa da unibertsitatean irakasle-lanpostu iraunkor bat lortzeko. Horrenbestez, **doktorego-tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek ekarpen handia egiten dute UPV/EHUREN helburuak erdiesteari begira, ikerketan eta irakaskuntza euskararen erabilera sustatzen laguntzen baitute**. Areago, tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek **ekarpena egiten diote euskararen beraren garapenari** ere. Izan ere, doktorego-tesia espezializazio-maila altueneko lan akademikoa delarik, lan hori euskaraz egiteko, doktoregaiek euskarazko terminologia eta fraseologia erabili behar dituzte, baita sortu ere, oso maiz. Gainera, euskara akademikoaren garapenari haien ekarpena egiteaz gain, **tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek beren hizkuntza-gaitasunak ere garatzen dituzte tesia euskaraz egitearekin batera** eta, horrela, irakaskuntzaren, ikerketaren eta dibulgazioaren hizkuntza-kalitatea hobetzen laguntzen dute.

Gauzak honela, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren helburu garrantzitsuenetakoa da euskarazko tesi kopuruaren eta horien kalitatearen handipena, eta horrela dago jasota euskararen plan gidari guztietan, baita une honetan indarrean dagoen *Euskararen IV. Plan Gidarian (2023-2027)* ere. Helburu horri begira, tesia euskaraz egiteko zenbait beka eskaintzen dira urtero. Bestalde, Euskaltzaindiarekin batera, euskarazko tesi onena

saritzeko "Koldo Mitxelena sariak" eskaintzen ditu bi urtean behin. Hala ere, orain arte ez da eskaini doktoregaiantzako hizkuntza-formaziorako berariazko planik.

Nolanahi ere, azken aldian agerian geratu da **orain arte indarrean dagoen araudian ez dela balioan jartzen merezi duen mailan** tesia euskaraz egiten duten doktoregaien ekarpena eta, gainera, konpondu beharreko zenbait hutsune detektatu dira:.

- a) **Doktorego-tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek ez dute jasotzen ekarpen hori egiaztatzeko inolako agiririk**, besteak beste, lan-poltsetan, irakasle-plazen lehiaketetan eta beketan aurkezteko. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da "Euskarazko Doktoregoa" aipamena ezartzea, egiaztapen hori tituluan txertatuta gera dadin.
- b) Euskarazko Doktoregoa" aipamenari dagozkion artikulua aparteko kapitulu batean sartuko dira, nazioarteko aipamenari, kanpoko erakundeekin lankidetzan egindako tesiei eta industria-tesiei dagozkienak bezala.
- c) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 25ean onartu zuen Doktorego Ikasketa Ofizialen Rudeaketarako Araudiak ezarritako baldintzak doktorego-tesi bat "euskaraz idatzia eta defendatua" dela onartzeko (gutxienez % 75- % 50 euskaraz idatzia eta gutxienez % 50 euskaraz defendatua), ez dira nahikoa tesia euskaraz idatzia eta defendatua dela onartzeko. Izan ere, doktorego-tesia testu-genero akademikoa baita eta bere osotasunean baita unitate linguistiko-komunikatibo bakarra. Hori dela eta, araudi berrian zehazten da **% 100eko eskakizuna behar dela bai idatzitako dokumenturako eta bai ahozko defentsarako** ere eta, horrela, dagokion aipamena txertatuko da tituluan.
- d) **Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoretzaren erantzukizuna da egiaztatzea doktorego-tesia euskaraz gordailuan uzten eta defendatzen duen doktoregaia euskarazko tesi horren egilea dela**. Nolanahi ere, **ezinezkoa da egiaztatze hori egitea tesia gordailuan uzten den momentuan aurkeztutako dokumentuan bakarrik oinarrituta**. Egiletza hori egiaztatu ahal izateko, beharrezkoa da idazketa-prozesuaren eta elaborazioaren ebidentziak lortzea urteroko jarraipenaren bidez.
- e) Azkenik, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren **erantzukizuna da baita dokumentu idatziaren eta ahozko defentsaren kalitate linguistikoa bermatzea**, hizkuntza-kalitatea UPV/EHUko Estatutuek eskatutako doktorego-tesien kalitatearen parte baita. Eta prozesuaren bukaeran ebaluazio negatiboa jasotzea dramatikoak bailitzateke tesia egin duen pertsonarentzat. Segimendu jarraitu eta formatiboak, aldiz, doktoregaiei hobetzeko aukerak eskaini ahal dizkie hizkuntza-gaitasunak garatzeko prozesuari eta bukaerako emaitzaren kalitatea bermatzeari begira

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren ardura izango da «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko baldintzak ezartzea, funtzio hauen bitartez:

- a) Doktoregaiek doktoregoaren lehen, bigarren edo hirugarren matrikula egiteko orduan tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko formularioak diseinatuko ditu, eta datu-base batean bilduko du formulario hori aurkeztu duten doktoregaiei buruzko informazioa.
- b) Hizkuntza-prestakuntzarako berariazko programa eskainiko die doktoregaiei, euskarazko komunikazio espezializaturako gaitasunak garatzen laguntzeko, bereziki erregistro akademikoak, eta terminologia eta fraseologia espezializatuak lantzeko.
- c) Doktoregaiek «EHULKU sarea» ere izango dute eskura, tesia idatzi ahala sortzen zaien edozein hizkuntza-zalantza kontsultatu ahal izateko.
- d) Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren doktoregaiei jarraipena egiteko deialdiak egingo ditu, eta jarraipen horretarako irizpideak eta aurrera eramateko epaimahaiak finkatuko ditu.
- e) «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko nahitaezko txostena tramitatuko du.
- f) Euskararen C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko akreditazioa tramitatuko du 47/2012 Dekretuaren arabera.

INDARREAN SARTZEA ETA BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Araudi berria indarrean sartuko da Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Doktoregaiak tesia euskaraz egiten ari direnen taldean sartzeko prozedura **matrikulazio-prozesutik independentea izango den formulario baten bidez** egingo da. Hortaz, araudia onartu bezain laster, **matrikula araudia indarren sartu aurretik egin duten doktoregai guztiei eskainiko zaie formularioa aurkezteko aukera.**

Behin-behineko xedapena dela eta, elementu hauek hartu behar dira kontuan:

- **Doktorego-tesia**ren matrikula urtero egiten da eta, beraz, **ez du zentzurik behin-behineko xedapena** tesia **ren lehen matrikularen unera arte hedatzeak.**
- Funtsezkoa da araudi berria ahal den eta azkarren aplikatzea justifikazioaren atalean zehaztutako hutsuneak ahal den eta azkarren konpontzeko.
- **Doktorego Eskolako teknikariek** sakonki ezagutzen dituzte tesia **ren** elaboraziorako eta gordailuan uzteko prozesuak, eta **behin-behineko xedapenaren aplikaziorako data-muga modura 2025-2026 ikasturtea proposatu dute**, epe horrek azken matrikula barne-biltzen baitu.,

Hori dena dela eta, **behin-behineko xedapena 2025-2026 ikasturtearen bukaerarekin lotzea proposatzen da.**

Hortaz, proposatzen da UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 25ean onartu zuen Doktorego Ikasketa Ofizialen Kudeaketarako Araudiaren 24. artikulua **ren** 4 atala aldatzea, 25. artikulua ezabatzea, eta haren lekuan kapitulu berri bat sortzea, hurrengo konparazio-taularen arabera.

2024ko apirilaren 25eko araudia

24. artikulua.– Tesia gordailuan uzteko prozeduraren amaiera: tesia erregistratzea.

[...]

4.– Hala dagokionean, doktoregaiak dokumentu hauek ere aurkeztuko ditu:

- «Nazioarteko doktorea» aipamenerako eskaria
- «Industria doktorea» aipamenerako eskaria
- «Kanpoko erakundeekin lankidetzan egindako tesia» aipamenerako eskaria
- Euskarako C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko agiriaren eskaria, bat etorrita 25. artikuluan adierazitakoarekin.

Proposamen berria

24. artikulua.– Tesia gordailuan uzteko prozeduraren amaiera: tesia erregistratzea.

[...]

4.– Hala dagokionean, doktoregaiak dokumentu hauek ere aurkeztuko ditu:

- «Nazioarteko doktorea» aipamenerako eskaria
- «Industria doktorea» aipamenerako eskaria
- «Kanpoko erakundeekin lankidetzan egindako tesia» aipamenerako eskaria
- «Euskarazko Doktoregoa» aipamenerako eskaria.

25. artikulua.– Euskarako C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko agiria.

1.– Euskarako C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko agiria eskuratu ahal izateko, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena), doktoregaiak doktorego tesia erregistratzen duenean aurkeztu beharko du eskaria, eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- Doktorego tesia **ren** % 75, gutxienez, euskaraz idatzita egon beharko da; eta nazioarteko tesia bada, % 50.

--- KAPITULUA: EUSKARAZKO DOKTOREGOA

-- artikulua- «Euskarazko doktoregoa» aipamenaren eskakizunak

1. «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko interesa duten doktoregaiak eskaria egin beharko dute tesia gordailuan uzteko erregistroa egiten duten unean.

2. Doktore-tituluak atzealdean «Euskarazko doktoregoa» aipamena eraman ahal izango du baldintza hauek betez gero:

- Defentsaren % 50, gutxienez, euskaraz egin beharko da, eta hori graduko aktan jaso beharko da.

2.- Euskarako C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko agiria eskatzeko prozedura euskararen arloko eskumenak dituen errektoreordetzak ezarriko ditu, bai eta agiri hori ere eskuratu ahal izateko ebaluazio irizpide berriak ere.

3.- Euskararen arloko eskumenak dituen errektoreordetzak beharrezkoak diren itzulpen baliabideak bermatuko ditu epaimahaiko kide guztiek doktoregaiaren aurkezpen publikoa uler dezaten.

a) Doktorego-programan lehen matrikula egiteko orduan euskararen alorrean eskumenak dituen Errektoretzari tesia euskaraz egiteko asmoa duela adieraztea tramitazio-formularioaren bidez. Nolanahi ere, tesia egiten hasi direnean euskaraz egiteko asmoa adierazi ez duten doktoregaiek doktorego-programan bigarren matrikula egiten dutenean adierazi ahal izango dute tesia euskaraz egiteko asmoa, baita hirugarren matrikulan ere, salbuespen modura, haien egoera akademikoak artikuluan zehazten diren beste baldintzak betetzeko aukera ahalbidetzen dienean.

b) Doktorego-titulua lortzeko formazio-garaian zehar doktoregaiek jarraipena izatea eta, garai horretan, doktoregaiantzako berariazko hizkuntza-formazioan parte hartzeko aukera edukitzea, euskararen alorrean eskumenak dituen Errektoreordetzak ezarritako deialdi eta irizpideen arabera.

c) Tesiaren % 100 euskaraz idatzita egotea, tesia edozein motatakoa izanda ere. «Nazioarteko doktoregoa» aipamena ere lortu nahi duten doktoregaiek, artikulua honetan zehaztutako baldintzak ez ezik, 39. artikuluan zehaztutako atalak gaineratu beharko dituzte gutxienez.

d) Ahozko defentsaren % 100 euskaraz egitea. «Nazioarteko doktorea» aipamena ere lortu nahi duten doktoregaiek kontuan hartu beharko dute 39. artikulua ahozko defentsarako ezartzen duen gutxienekoa komunikazio zientifikorako erabiltzen den beste hizkuntza batean egitea. Hortaz, azken kasu honetan, ez da beharrezkoa izango ahozko defentsa osoa euskaraz egitea.

-- artikulua- Euskararen alorreko eskumenak dituen Errektoreordetzaren funtzioak eta eskumenak

1. Artikulu honen aplikazioa posible izateko, euskararen alorrean eskumenak dituen Errektoreordetzak funtzio eta eskumen hauek garatuko ditu:

- Doktoregaiek doktoregoaren lehen, bigarren edo hirugarren matrikula egiteko orduan tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko formularioak diseinatzea, eta datu-base batean biltzea formulario hori aurkezten duten doktoregaiei buruzko informazioa.

- Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren doktoregaiei jarraipena egiteko deialdiak egitea, eta jarraipen horretarako irizpideak

eta aurrera eramateko epaimahaiak finkatzea.

- Hizkuntza-prestakuntzarako berariazko programa eskaintzea doktoregaiei, euskarazko komunikazio espezializaturako gaitasunak garatzen laguntzeko, bereziki erregistro akademikoak, eta terminologia eta fraseologia espezializatuak lantzeko. Doktoregaiek «EHULKU sarea» ere izango dute eskura, tesia idatzi ahala sortzen zaien edozein hizkuntza-zalantza kontsultatu ahal izateko.

- «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko nahitaezko txostena tramitatzea.

- Euskararen C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko akreditazioa ofizioz tramitatzea 47/2012 Dekretuaren arabera.

Behin-behineko xedapena.

Tesia 2025-2026 ikasturtea bukatu aurretik tesia gordailuan uzten duten doktoregaiek aukera izango dute 2024ko apirilaren 25eko araudia aplikatzeko.

Azken xedapena. ***Indarrean sartzea.***

Araudi hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.